



ZIERBENA ITSASOKO ZAPOREA



Informazio gehiago www.zierbena.net webean



Informazio eta Turismo Bulegoa

Barrio El Puerto
Edificio Multifunción
T: 946 404 974
turismo@zierbena.net



Zierbenak eskaintzen duen landa eta kostaldearen arteko binomioak egiten du udalerrri hau zoragarri, euskal kostaldeko toki tipikoaz gozatzeko eta bertan deskantsatu ahal izateko.



Nerbio ibaiaren ezker bazterreko Mendebaldeko muturrean, Abra portuan, **Zierbena** arrantza-herri paregabea dago.

Zierbenako San Roman 1995era arte Abanto eta Zierbena udalerrikoa izan zen. Baina urte horretan, **Zierbenak** banantzea eta udalerrri propioa sortzea lortu zuen.

Ohiko jarduerak nabigazioa nahiz arrantza izan badira ere, egitura ekonomikoan nekazaritzak eta abeltzaintzak ere garrantzia handia izan dute.

Kokapen geografiko pribilegiatuari esker, portuaren eta aisialdiaren inguruko jarduerekin lotutako sektore ekonomiko garrantzitsua garatu du egun **Zierbenak**.





LA ARENA HONDARTZA



Kantauri itsasoko ur harrotuei, harea finezko duna leunei eta inguruko mendiei esker, hondartzaren 966 metroak aproposak dira edozein bisitarik aisialdia bertan primeran emateko.

Gainera, jolaserako gune nahiz ostalaritza eskaintza zabalei esker, adin tarte guztietako lagunek urte osoan zehar **ingurune bikain** honetaz gozatzeko aukera daukate.



Bestalde, **La Arena hondartza** surfa egin nahi dutenentzako topaleku garrantzitsua ere bada.



AUTROPORTUA

Bilboko portua eraikitzearen ondorioz, izugarriko transformazioa jasan duen arren, **Zierbenako portuak** oraindik ere **xarma tradizionala** mantentzen du. Arrantza-itsasontziek, aisialdirako ontziek eta gure jatetxe hobezinek txundituta utziko dituzte gugana hurbiltzen diren lagun guztiak.







Zierbenako historia portuarekin estu-estu lotuta badago ere, ezin dugu ahaztu barnealdeko auzoen erakarmena. **La Cuesta-Aldapa, Valle, Kardeo eta San Mames** auzoek leku interesgarri asko dituzte eta horien artean hauexek aipa ditzakegu: **Serantes, Montaño eta Punta Lucero** mendiak. Horietatik gure bisitariak bista panoramiko izugarriak begiztatu ahal izango dituzte.







Zierbenan badaude aipagarriak diren elementu historiko eta artistiko batzuk. Horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira: XII. mendeko San Roman parrokia, 1880. urtean zaharberritu zutena; Portuko Andra Mariaren eliza, San Roman parrokiari atxikita dagoena; eta Loiolako San Inazio ermita. Azken hori, udalerriko modernoena izanda (1907koa da), Errepublikara garaiko suntsipenei aurre egin zien bakarra da.



Udaletxea eraikuntza modernoa da eta garai bateko eskolen orubean dago. 1997ko urriaren 15ean inauguratu zen.

Era berean, itsasoko gizon-emakumeen ohorez Xebas Larrañagak egin eta portuan dagoen eskultura nabarmendu behar dugu.





Ugariak dira gure udalerrian urte osoan zehar antolatzen diren ekitaldiak. Horrela, urriko lehenengo asteburuan **Itsaski Azoka** ospetsua egiten da. Arrantzaleen udalerriko tradizioari eutsita, itsaskia da bertakoentzat nahiz kanpokoentzat erakargarritasun nagusienetako bat. Bestalde, udan zehar sei auzoetako jaiak ospatzen dira.



Kirol tradizioen artean, ostera, eskualdean oso tipokoa den "Katxete" bola-jokoa eta arrauna azpimarratu behar dira. **Zierbenak** Bizkaiko arraun talderik zaharrenetakoa du, eta gainera, historia bikaina du. Hain da handia kirol honi diogun zaletasuna, non XIX. mendean mugaren arazoa konpontzeko ardura Santurtzi eta **Zierbenako** kontzejuek arraunlariei eman zieten.





Zierbenako gastronomiak eskaintza zabala du, eta honek marinelen tradizioak jarraitzen ditu.



Bestalde, Zierbenako jatetxe eta tabernek anoen eskaintza zabala ere badute, aukera hori nahiago dutenentzat.

Horrela, kalitate handiko arrain eta mariskoz egindako errezeta tradizionalak egungo sukaldaritza tendentziekin bat egiten dute.





JATETXEAK

La Arena hondartza

Asador Zelai	94 636 51 73
Itxas Gane	94 636 53 67
La Fábrica de Juan	94 636 53 61
La Maloca	94 636 51 57
La Parrilla	94 636 52 67

El Puerto auzoa

Arrondo	94 636 50 36
Batzoki	94 636 63 74
El Muelle	
El Marinero	94 636 50 58
El Puerto	94 636 53 48
Gloria	94 636 50 13
Lazcano	94 636 50 32
Punta Lucero	94 636 54 31
Taberna Eloy	94 636 53 13

Valle auzoa

Taberna Aitor	94 636 54 57
---------------	--------------

La Arena hondartza

Hondartza	94 636 55 18
Kantauri	94 636 52 69
Leomar	94 636 51 40
Tetería La Jaima	94 636 63 89
Waitaki	94 636 51 94

El Puerto auzoa

Bar La Trainera	94 636 50 06
Pub Casablanca	94 636 51 38

Valle auzoa

Pub Nexo	663 724 137
----------	-------------

TABERNAK + KAFETEGIAK

OSTATUAK

La Arena apartamentu turistikoak
La Arena hondartza 94 636 54 54

Kaia hotela
El Puerto auzoa 94 636 63 74



NOLAHELDU

AUTOBUSEZ

A3335. Sestao-Muskiz

A3321. Portugalete-Muskiz

Irteerak: orduro.

Udan: ordu erdiro.

AUTOZ

A8 autobiatik bi aukera daude:

Gallarta-Zierbena irteera hartuta.

Santurtzi portua irteera hartuta eta
N-639 errepidetik jarraituta.



www.zierbena.net

